

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Hondakinetatik baliabideetara

Lehen Hezkuntza (Lehen Zikloa)

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza.

Esperientzia honetan gure ingurunea zaintzen hasiko gara. Lehenik, behar duguna bakarrik aukeratzen eta gauzak alferrik ez galtzen ikasiko dugu, eta objektuei bigarren bizitza ematen saiatuko gara: berrerabili, konpondu edo aprobetxatu bota aurretik.

Ondoren, uraren indarra erabiltzen duen errota bat bisitatuko dugu eta artoa irin bihurtzen ikusteko aukera izango dugu. Horrela, ikasiko dugu gauzak ondo aprobetxatuz eta alferrik ez galduz gure ingurunea zaintzen lagundu dezakegula. Jolasean eta elkarlanean arituz, ikasleek ikusiko dute hondakinen kudeaketa eta baliabideen erabilera jasagarria beti batera doazela.